

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

### 1.Hornitzaileak

- Gure hornitzaileenetako bat, nylon hornitu digu. Nylonarekin organizatzailea egiteko aukera izango dugu. Modu horretan, euri egunetan ez dira barruko plakak eta gailuak bustiko.
- Antolatzailearen piezak egingo dizkigun enpresak izango da gure elkarte klabea, haiek diseinatuko dituzte eta antolatzailea aurrera eramaten direla ziurtatuko dute. **Amphenol**
- **Akordio:** Gure hasierako akordio Amphenol 3 urtekoa izango da eta epe horretan, proiektua errentagarria den ikusteko aukera izango dugu. Lagunduko digun enpresarekin batera emaitza onak lortzen baditugu, biok lortuko dugu arrakasta. Haiek bezero gehiago izango dituzte, eta guk publizitatea lortuko dugu.
- Gure mugikorren plakak amazonetik erosiko ditugu eta ordenagailuen plakak lenovokoak izango dira

### 2.Funtsezko bazkideak

- **Naia R:** Giza Baliabideen Sailaz arduratuko da. Giza kapitala kudeatzeaz (hau da, langileak kudeatzeaz). Sail honen ardura da prestakuntza-planak, langileen errendimendua edo soldata-berrikuspenak. Horrez gain, diseinuaz arduratuko da.
- **Naia S:** Bezeroekiko arretan lan egingo du. Haien kezkak entzuten eta arazoak konpontzen saiatuko da, telefono bidez edo Gmailen bidez. Gainera, ekoizpen arduraduna izango da. Erosketa zuzentzeaz, planifikatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da.
- **Janire:** Marketin eta Publizitate Sailean arituko da. Enpresaren marka-posizionamendua hobetzeko publizitate-estrategiak garatzeaz arduratzen da. Berebiziko garrantzia du enpresaren produktuak eta zerbitzuak ezagutzera emateko orduan, bezeroak erakartzeaz eta fidelitateaz arduratzen baita.
- **Marina:** Finantzazioen arloan arituko da, zertan inbertitu behar den aztertuz, hileko gastuak gaindituko baditugun eta irabaziak izaten hasiko baditugu, kostuak murrizteko aukerak bilatu.

### 3.Baliabideak

Gure produktua gauzatzeko biltegi bat izango dugu, hor stocka gordetzeko. Han bulego bat izango dugu, han antolatzaileak diseinatzeko eta enpresaren kudeaketa kontrolatzeko. Aukeratutako biltegia alokatua izango da. Furgoneta bat behar izango dugu, organizatzaileak, ekoizpen enpresatik gure biltegirara eramateko.

### 4.Elkarteen Motibazioa

Sortu dugun enpresarekin, ez gara gu bakarrik etekinak aterako ditugunak, poltsoak ekoizten digun enpresak ere irabazi handiak izango ditu. Gure antolatzaileekin, fabrikazio enpresak famatuago egiteko aukera izango dugu. Horrez gain, gobernuak diru laguntzak emango dizkigu, 3.000€.

### **5.Optimizazioa eta ekonomia funtsezko bazkideekin**

Plakak erosten diogun enpresari, gero eta gehiago erosiz gero deskontu gehiago egingo dizkigu, hileroko dirua inbertituko dugulako hauek erosten eta azkenean erosle aktibo bat izango gara

### **6.Arriskuen eta ziurgabetasunaren murrizketa:**

Arituko garen enpresak diru-sarrera bat ziurtatuko du hileroko, horrela konfiantza lortuko du gure enpresarekiko, arriskuak eta ziurgabetasunak kenduko dizkiogulako gutxinaka. Guk dirua emango diogunez beste enpresari, fidagarritasuna segurtatuko dugu, erantzukizun bat izango dutelako.